



Andoain, 2022-11-08

*“Kazetaritza saria” eta “Komunikazio saria” emango dira, eta bakoitzerako lau finalista izendatu ditu epaimahaiak*

## 2022KO RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAK BADITU ZORTZI FINALISTA eta OHOREZKO BI MUGARRI

Azaroaren 30ean izango da sari banaketa ekitaldia Andoainen, eta han nortzuk diren aurtengo saridunak jakinarazteaz gain, bi ohorezko mugarri ere entregatuko dira

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren epaimahaiak izendatu ditu aurtengo finalistak. Bi sari nagusi emango dira, biak maila berekoak, bederatzina mila eurokoak: *Kazetaritza saria* bata, eta *Komunikazio saria* bestea. Bi sarietarako launa finalista izendatu ditu epaimahaiak. Zortzi finalista horien arteko bi izango dira, beraz, aurtengo RAKSen saridunak. Hona finalistak:

<b><i>Kazetaritza saria</i></b>
<b>Amaia Lekunberri Ansolak</b> ekoiztutako <i>Anorexia, bestelako gerturapen bat. Zer dio jateari uzten dionak, jateari uzten dionean?</i> izenburuko <b>Larrun</b> monografikoa.
ETBren <b>ASKE BIZI</b> dokumentala
<b>Miel A. Elustondok BERRIA</b> egunkarian argitaratutako <b>Tonban ehortzirik</b> erreportaje sorta.
ETBren <b>BIBA ZUEK</b> magazina.

<b><i>Komunikazio saria</i></b>
<b>enpresabidea.eus</b> webgunea
<b>Aiaraldea</b> komunikazio proiektua
Aiora <b>Probatxoak</b> Youtuben duen jarduera
<b>aikotaldea.eus</b> , Aiko Dantza taldeak sorturiko komunikazio proiektua

*(I eranskinean jasotzen dira epaimahaik baloratu dituen merituak)*

Finalisten artetik azkenean bi saridunak nortzuk diren -Kazetaritza sariko irabazlea bata eta Komunikazio sarikoa bestea- sari-banaketa ekitaldian jakingo da. Sari-banaketa ekitaldia azaroaren 30ean izango da, asteazkenarekin, Andoainen, Bastero Kulturgunean. Finalistak ere bertan izango dira, eta beraiek ere orduan jakingo dute, ez lehenago, nortzuk diren saridunak.

Aurtengo sari-banaketa ekitaldiak beste bi pertsona omenduko ditu, ohorezko mugarri izendatuz:

Elixabete Garmendia
Patxi Baztarrika

**Elixabete Garmendia**ri euskarazko kazetaritzan izandako ibilbide oparoa aitortu nahi zaio sari honen bidez. Zeruko Argiaren zuzendari izan zen, eta berari esker aldizkari zorrotz, moderno eta irekia plazaratzen zen asterik aste. EITBn ere aritu zen luzaz, telebistan nahiz irratian, baina asko izan dira bere partaidetzarekin kontatu eta kontatzen duten medioak. Kazetaritzako alor gehienak landu ditu Elixabete Garmendiak, bere kemena, izpiritu zabaltasuna eta eskuzabaltasuna eskainiz, batzuentzat halaber eredu bilakatuz.

**Patxi Baztarrika**ri dagokionez, berak sortu zuen teknikoki Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 1988an Andoaingo Udaleko euskara teknikari gisa. Sari hauen sorrera landu, bideratu eta hauspotu zuen eta berari zor zaio sariari behar beste eduki eta irismen eman izana, hala bere bilakaeran nola ibilbidea biziberritzea suertatu den garai guztietan, profesionalki zegokionetik askoz areagoko arduraz, jomugaz eta ahaleginaz jardun izan baitu idazkari gisa, orain bi urte erretiroa hartu zuen arte.

Finalistak izendatu dituen eta sariak erabakiko dituen epaimahaia ondorengoek osatzen dute: **Itxaro Borda** (idazlea eta prentsa kolaboratzailea), **Aingeru Epaltza** (idazlea eta hainbat hedabidetako kolaboratzailea), **Pantxika Maitia** (kazetaria eta film-egilea), **Miren Gabantxo** (UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateko irakaslea), **Ion Muñoa** (Deustuko Unibertsitateko Komunikazio Graduko irakaslea), eta **Jon Sarasua** (MUko HUHEZIKo irakaslea eta komunikazioan aditua). Mahaiburua Andoaingo Udaleko Euskarako zinegotzi arduraduna, **Alexander Huitzi**, eta idazkaria, **Arantza Aguado**, Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria dira.



Andoaingo Udala

Euskara Zerbitzua

## EPAIMAHAIK BALORATU DITUEN MERITUAK

### **Kazetaritza saria**

**Amaia Lekunberri Ansolak** **ekoitzitako Anorexia, bestelako gerturapen bat. Zer dio jateari uzten dionak, jateari uzten dionean?** izenburuko **Larrun** monografikoa.

Zerk egiten du jateari uko egiten diogula? Zeintzuk dira anorexiaren ondorioak buru, gorputz, osasunarentzat? Larrun#270 monografikoan irakur daitekeen Amaia Lekunberri Ansola kazetariaren lan sakonak mendez mende eritasunak izan duen bilakaera aztertzen du, hainbat mediku, berezilari, antropologo eta anorexia bizipenak jasan dituztenen lekukotasunen arteko armiarma sarea josiz. Ikerketa eta adierazpen hauek irakurketa feminista eta soziokulturala agertzeaz gain, elikagai murrizketaren sindromeak gure jendartean eragiten duenaren esanguratsu da.

### **ETBren ASKE BIZI dokumentala**

ETBko lehen kateak, 2022ko ekainaren 21ean igorri zuen, Ur Handitan emankizunaren zenbaki berezi gisako ASKE BIZI dokumentala. LGBTQI+ kolektiboko kide batzuen bizipenak eta adierazpenak biltzen ditu ordu betean, galdera egilea Xabier Madariaga kazetaria delarik.

Euskal Herriko leku ezberdinetan filmatuak dira elkarrizketak: Bilbo, Donostia, Iruñea, toki bakoitzean, LGBTQI+ taldeetako pertsona singular batek hitz egiten duela. Lekukotasunak biziki hunkigarriak dira: lesbiana gazteak (Olatz Salvador) eta adinekoak (Chelo), June Fernandez Pikara magazineko zuzendaria agertzen da, neska > mutil trantsizioan dagoen hernaniar bat eta genero klaseak eskoletan ematen dituen ez-binario bat. Gutxi ezagutzen dugun zirkulu horien adibideak dira, beraiek ere normalitate bila dabilzanak. Xabier Madariagak, kontu handiz, galdera zuzenak baina errespetuzkoak egiten zizkien.

Patologizatu eta ahoan bilorik gabe, aipatzen da hemen, EH-ko LGBTQI+ mundua, lekukoak aurkitzeko zailtasunak eta gai horiez mintzatzeko beldurrak gaindituz.

### **Miel A. Elustondok BERRIA** egunkarian argitaratutako **Tonban ehortzirik** erreportaje sorta.

Ibilbide luzeko kazetaria dugu Miel Anjel Elustondo. Aspaldi frogatua du bere elkarrizketatzaile sena euskarazko prentsa idatzi nahiz ikus-entzunezkoetan. Besteak beste, azken urteetako uharari jarraiki, hildako pertsonak elkarrizketatuz "Tonban ehortzirik" sailean ale bikainak eskaini dizkigu, euskarazko kazetaritzan parekorik ez dutenak. Dokumentazio lana, pertsonaiarekiko hurbilketa eta egiantzekotasun formala nabarmentzen dira fikzioaren eta kazetaritzaren arteko mugak hausten dituen sail honetan. Testu sorta honetan, batetik, eta euskarazko prentsa idatziko agerkerietan argitaratu dituen beste elkarrizketa nahiz erreportajeetan, bestetik, kazetari-sentsibilitate berezia agertzen du Elustondok, ezaugarri pertsonalak dituen marka. Eta, beste behin, agerian utzi du bere ibilbide luzean erakutsitako kalitatea.

### **ETBren BIBA ZUEK** magazina.

BIBA ZUEK ETB1en iluntzeko albistegiaren aurretik, arratsaldeko 18etatik 20etara, egunero zuzenean emititzen den magazin saioa da. 2020ko irailean hasi zen, eta lehen denboraldiko arrakastaren ondotik, 2021eko udazkenetik 2022ko uda bitartean (sariketa honi dagokion epean) bigarren denboraldian

telebistako programazioaren mundu konplexu eta aldakorrean egonkortzea lortu du. New Digital Media Euskadik ekoitzi eta Maddalen Arzallusek eta Xabier Sukiak aurkezten duten magazinaren ezaugarri nagusia gertukotasuna da: gaietan, tonuan, testigantzetan, kolaboratzaileen ekarpenetan... egunero nabarmentzen da hurbiltasun hori. Herritar arruntari interesgarri eta atsegin zaizkion edukiak “etxerako moduan” eskaintzen dizkio saioak. Morbotik eta aktualitateko ohiko eztabaida nagusietatik ihes eginda, Euskal Herriko aniztasuna, lurraldetasuna, kultura eta abarrak mimoz zainduta ontzen dute saioa. Horrek guztiak ikus-entzuleen gustuko egin du eta bigarren denboraldi honetan lortu dute audientzietan oso lehiakor bihurtzea, ETB1n batez bestekotik gorako datuak lortuta: % 4,2ko kuota orokorra eta euskaldunen artean % 11koa.

## ***Komunikazio saria***

### ***enpresabidea.eus*** webgunea

enpresabide.eus atari digitala 2022ko apirilean jaiotako euskarazko proiektu komunikatibo berria da. Aurkezpenean diotenez, “euskal egunkari digitala da, bertako informazio ekonomiko eta enpresarialean espezializatuta, euskaraz egin eta lurraldean errotua. Euskal ekonomiaren eta enpresa-munduaren ekosistema ikusaraztea eta kohesionatzea du helburu, ikuspegi eraikitzailea eskainiz eta dibulgazioa eginaz”. Nico Cuenca ekonomialariak zuzentzen du proiektua eta Pilar Kaltzada kazetaria da sustatzaile nagusietako bat. Azpimarratzekoa da enpresaren eta ekonomiaren mundua euskaraz eta euskaratik plazaratzeko proiektu hau egiten ari den ekarpena, arlo horretan aski begi bistakoa den hutsunea betez. Aktualitateko informazioa eta gai jakinei buruzko eduki landuak interpretazio eta iritziarekin uztartzen ditu atari digital berri honek. Nabarmentzekoa da iritzi emaileen aniztasuna eta emakumeen presentzia, oraindik ere hain maskulinizatua den mundu horretan.

### ***Aiaraldea*** komunikazio proiektua

Aiaraldea komunikazio taldeak urteak daramatza euskarazko hedabide-lanetan ingurune soziolinguistiko zailean hizkuntzari arnasa ematen. Hedabide-lanetatik hasita, proiektu zabalago eta integralago bateranzko bidea hasi du azken urteotan. Hedabide soil izatetik, dimentsio anitzeko proiektu komunitario izateko bidean da. Pandemiaren lehen urtean egindako gogoeta estrategikoari jarraituz, Aiaraaldea kooperatiba bihurtu da, eta esparru guztietan (aisialdia, kultura, hezkuntza, ekonomia...) euskaraz egituratuko diren proiektu eraldatzaile berriak sustatzen ditu. Aiaraaldea Ekintzen Faktorian aurten emandako pausoak dira ibilbide horren lekuko. Aiaraaldea hedabidea bera da prozesu horren guztiaren ardatza, plazaratzailea, profesionaltasuna eta konpromisoa batzeak ematen duen kalitatez egin. Euskal Herriarentzat, euskararen komunitatearentzat, zentzu askotan inspiratzailea eta bide erakuslea da euskararen lurraldearen ertzetako batean martxan dagoen egitasmoa.

### ***Aiora Probatxoak*** Youtuben duen jarduera

Aiora Mujika komunikatzaile eta bideo-egile donostiarra aitzindaria izan da euskal youtuberren artean. Probatxo bere kanala abiarazi zuen 2017an, euskarak sare horretan zuen leku urriaz kezkatuta. Geroztik, 100 bideo plazaratu ditu bost urtean, 3000 jarraitzaile inguru bildurik. Gai sozialak erabili ditu nagusiki, egunerokotasunari dagozkionak ahantzi gabe, bere zaletasunak eta bere bizipenak barne. Urte honen

hasieran iragarri zuen YouTubeen eten bat egiteko erabakia. Gainerako sareetan (Twitter, Instagram, Facebook) jarraitzen du, nolana ere.

Aiora Mujikaren hautua egitean, epaimahaiak haren komunikazio gaitasunari erreparatu dio, bereziki nabarmentzekoa delarik kameraren aitzinean agerian jartzen duen freskotasuna, baita, zergatik ez, haren mintzaera bizi eta aldi berean zuzena ere, langintza berean ari direnendako eredugarri.

***aikotaldea.eus***, Aiko Dantza taldeak sorturiko komunikazio proiektua

AIKO Taldea, Euskal Herriko dantza tradizionalaren hedapena sustatzen duen musikarien eta dantza maisuen kolektiboa da. Pandemiaren isolamenduari aurre eginez, aparteko komunikazio erreminta sortu zuen, Aiko Eskola Digitala, [www.aikoeskola.eus](http://www.aikoeskola.eus), aitzindaria den euskal dantza eskola digitala. 2021-22 ikasturtetik aitzin eskola presentzialetako ikasleentzat ere ireki da, eskolako "testu liburu" gisa. Kultura garaikide tradizionala ingurune parte-hartzailean sustatzeko eta dantzarako sarbidea eta belaunaldien arteko harremana errazteko komunikazio estrategia etengabe lantzen du. Euskal Herrian eskainitako emanaldi ibiltariekin batera, AIKO Taldeak dantza egiteko musikaz osatutako 12 disko argitaratu ditu, eta kultura herrikoiaren ondarea ikertzeko eta hedatzeko hainbat ekimenen protagonista izan da, *Fasioren Mendea* edo *Urraska-Dantza jauziak Sagasetaren bidetik* ("jauziak" izenekoen erreperorioaren bilduma), edo jotari omenaldia eskaintzen dion *Jotamentala* ikusentzuzkoa. Ondarea berreskuratzeko etengabeko jardunean, 2022an Beñat Irigoyen "Galtxetaburu" soinulariak (1934-Monterrey Park, 1990-Gamarte) kasetez bildutako musika (Irulegi Irratian 1988an grabatutakoa) Aiko Taldeak hartu eta birmasterizatu egin du, eta horrez gain "Galtxetaburu eguna" antolatu du, Uharte Garazin, musika eta dantzaren inguruan ehunka lagun bilduz.